



Erlea Maneros Zabala

Markoak erakusten duena

BAILARAREN AHOTSA (2017)

Bideo digitala. 4 ordu pasa



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Azaroaren 4an bukatu da erakusketak Los Angeleseko Redling Fine Art galerian. Markoak erakutsi ditu han, hautsiak, osatu gabeak, herrenak, soltatuak. Markoekin batera erakutsi du lau ordu pasako bideo hau ere: *The Voice of the Valley*. Hor goiko *frame* horretan artista ageri da, markoak egiteko egurrak prestatzen. Barrokoan-eta egiten zuten bezala, artistak zurari igeltsu zuria ematen dio, leuntzeko, garai batean urrea eman aurretik egiten zen prozesua errepikatuz, markoaren materialtasuna bera agerian jarritz. Azken urteotan Joshua Tree basamortuan bizi da Erlea Mane-

ros Zabala (Bilbo, 1977ko martxoaren 17a), han sortu ditu lan hauek, bere estudioan.

Artista egunero joaten da estudioara, errepikakorra da bere lana, mekanikoa, aspergarria ia. Hartzen ditu egurrak, mozten ditu neurrian, lixatzen ditu mimo handiz, ematen die igeltsua gero urrea eman behar balie bezalaxe, eta bitartean irrati lokala entzuten du, “*libertarians*” deitzen zaien jendea, sekulakoak botatzen uhinetan. Horixe da bideoan ikusi eta entzun daitekeena. Artista markoak dekonstruitzen, eta irratia sortzen duen marko ideologikoa erakusten aldi berean.

“Herri txiki batean bizi naiz”, dio artistak, “eta hau beste mundu bat da. Ameriketako Estatu Batuetan arte munduan dabilen jendeak ez daki hau badenik ere, ez du ezagutzen, arrotza egiten zaie erabat”. Erlea Maneros Zabalak inoiz entzun ez duten hori entzunarazi nahi die, markoak erakutsi, errealitatea zedarrizten duten markoak. “Artisten artean ere egon da joera bat mendebaldeko basamortua leku huts eta utopiko batekin lotzeko, natura puru batekin, baina basamortuan jenda bizi da, eta hemengo giro soziala oso gogorra da, zerikusi gutxi du leku utopiko horrekin”.

Begira iezaiozu markoari. ■